

June Aiestaran Iparragirre

B maila • 1 saria

Iepa! June Aiestaran nauzue, 16 urte dituen neska beasaindarra. Beasaingo Txindoki institutuan 4. maila egiten ari naiz eta beste gauza askoren artean bertsolaritza ikaragarri maite dut. Horregatik, aurren ere bertsoen bidez saiakera egitea erabaki nuen idazlehiaketa honetan. Bertso-sorta honetan azaldu nahi izan nuen zer den bertsoa niretzat, zer eragin duen niregan. “Bertsotik Haratago” izena jarri diot, jendeak irakurtzean jakin dezan bertsoa ez dela bertsoa bakarrik; bertsoak beregan gauza asko dakartzala eta dakartzan gauza horiek guztiak eragin handia izan dezaketela guregan. Espero dut asko gustatzea bertso hauek. Gozatu!



BERTSOTIK HARAGO

Nire adineko nesken
buru hauste eta ezten
mingarririk nola ez den
listu artean irensten,
ikasi egin beharra dago
gure buruak babesten,
egun batean hargatik hasi
nintzen doinuok abesten.
Bertsotik eta bertsoagatik
ari naiz ertzak tolesten,
berari esker hasi bainintzen
mugarik gabe amesten.

Nire moduko nerabe
kezkati eta ahalge
bat ametsak aldeaz alde
ase dezake xuabe.
Irudimenak egiten gaitu
borroka-grinaren jabe,
baina askotan estropezuka
ibiltzen gara halare.
Bertsoari so ikasi dut nik,
bere esku, bere sare:
libreagoak garela epai,
baldintzei men egin gabe.

BERTSOAK

BEC handiko elitea
edo "petit commite"a,
nahiz zaila den jakitea
zein den daukagun jitea.
Inportantea da egiatik
egiarantz ekitea,
erdi-gordeta ditugun hitzei
errotik eragitea,
nahiko badugu gure bertsoen
beroak irakitea,
giltza bakarra delako garen
horretatik egitea.

Oholtzako bertsolari,
entzulegoan kantari
dagoena adi-adi
ta musika teknikari.
Txalo bat bide izan daiteke
eta bide bat igual bi,
zenbat magia aireratzen den
ahapaldiz ahapaldi.
Aldameneko aulkikideek
bertsoaldiz bertsoaldi
eskainitako epeltasunak
egiten gaitu hain handi.

Lau oin hauek atontzea,
ideia hori ontzea,
lagunari aitortzea:
"nahi nuke hura lortzea".
Hain da zilegi mikrofonotik
"mikro-fondo"ra lotzea,
zoragarria ez al da nola
aldatzen zaigun posea?
Guztiok neurri-molde berean
estutu arren kortsea,
hainbeste neurri diferentedun
mundu berriak sortzea?

BERTSOAK

Arau sozialak hesi
bilakatzean, ez etsi,
ez da zertan ihardetsi,
izan lasai parentesi.
Bizitzan beste heltzen diogu
bertsotan mila ametsi,
bizitzan beste maite ditugun
ahots horiek miretsi.
Neurritik irten gaitezen aske
ta garena lehenetsi,
altxa ahotsa, baina lehenik
ahots horretan sinetsi!